

Elena Anayak, Marta Eturak, Itziar Atienzak, Irene Escolarrek eta Clara Roquetek Disney+en *Largas sombras* aurkeztuko dute CROSSOVER jaialdiaren zazpigarren edizioaren amaierako ekitaldian

Telesailak eta moda, telesailen urteko uzta, telesailen buruz buruko klasikoa eta AXN Now-ren *Without Sin (Libre de culpa)* telesailaren estreinaldia izango dira azken eguneko programazioan

Apirilaren 27an, larunbata, CROSSOVER jaialdiak 12:00etan hasiko du programazioa Koldo Mitxelena Kulturunean (Santa Teresako klaustroa), modan espezializatutako **Laura Chamorro** kazetariarekin eta **Jokin Ayerregaray** *influencerrarekin*. Telesailen eta modaren arteko harreman estuaz hitz egingo dute, moda tramaren funtsezko zatitzat duten proiektuei buruz –hala nola **Balenciaga** edota iristear den **Becoming Karl Lagerfeld**–, baina baita gai nagusia ez izan arren modari garrantzi berezia ematen dioten beste telesail batzuei buruz ere, **Mad Men** edo **Sex and the City** adibide.

17:30ean, Kutxa Fundazioa plazan, **La cosecha del 24** izango da. **Marina Such** eta **Borja Crespo** kritikariek urteko estreinaldiak erreparatuko dituzte, harrerarik onena izan duten telesailak eta estreinatzeko dauden arren a priori etorkizun handikoak diruditenak nabarmenduz. Ez dira honako hauei buruzko aipamenak faltako: **Ripley** (Netflix), **Reina roja** (Prime Video), **Shogun** (Disney+) edota **The Regime** (HBO Max).

18:00etan, telesailen buruz buruko klasikoa izango da: **Marina Suchek** eta **Borja Crespok** *Northern exposure (Doctor en Alaska)* defendatuko dute, eta **Alberto Reyk** eta **Paloma Randok**, berriz, **Miami Vice (Corrupción en Miami)**. 18:30ean beste estreinaldi bat izango da Tabakalerako zinema-aretoan: **Without Sin (Libre de culpa)**. Thriller britainiarra da, eta laster ikusi ahal izango da plataforman. **Vicky McClure** aktore sarituak ama bat interpretatzen du, alabaren ustezko hiltzaileari aurre egin behar diona.

CROSSOVER jaialdiaren zazpigarren edizioa amaitzeko, **Las largas sombras** estreinatuko da, Disney+-en jatorrizko telesail bat, eta talde tekniko eta artistikoaren ordezkari zabala izango da estreinaldian. 20:00etan hasiko da telesailaren lehen atalaren proiektzioa, eta, ondoren, solasaldia izango da **Clara Roquet** zuzendariarekin, **Sofía Fabregas** plataformaren jatorrizko ekoizpenen VParekin eta **Elena Anaya**, **Marta Etura**, **Itziar Atienza** eta **Irene Escolar** aktoreekin. Estreinaldirako sarbidea gonbidapen bidezkoa izango da, eta doan lor daiteke www.crossoverseriesfestival.com helbidean.